

# TabletPC

## Ordenagailu eramangarren etorkizuna

*Josu Waliño Pizarro*  
Informatikan lizentziatua

**Informatikaren garapena tramankulu baten asmakuntzatik berri baten asmakuntzara doa. Gaur egun ordenagailuek etorkizunik ez dutela esaten hasiak dira, eta horien eboluzio logikoa TabletPC delakoa omen da. Baina zer da hori? Mahai gaineko ordenagailuaren eta PocketPCen arteko konbinazioa den horrek zeresan handia emango du datozen hilabeteotan.**

ERAMANGARRITASUNA DA ETORKIZUNA, GERO ETA GARBIAGO DAGO. Telefono mugikorrek geroz eta erabilera gehiago dituzte: Internet, posta elektronikoa, agenda, etab. Ordenagailu eramangarriak geroz eta txikiagoak eta arinagoak dira, eta PocketPCak ere geroz eta

tresna gehiagorekin datoz. Baina guztiak batera erabiliz gero erotu egingo gara; gainera, informazio gehiena etxeko ordenagailuan badaukagu, informazio-transferentzia handia egin behar dugu behin eta berriz. Zulo hori betetzera dator TabletPCa. Finean, mahai gaineko ordenagailu eramangarria da, baina ez orain arte ezagutu ditugun eramangarri horietakoa: kasu honetan askoz ordenagailu txikiagoa izateaz gain, pantaila baino ez dugu beharko, PocketPCaren antzera baina eramangarri baten ahalmenarekin.

Gaur egun badaude merkatuan hainbat TabletPC, baina urtearen erdialde-

an kaleratuko omen da etorkizuneko izango dena. Badirudi, TabletPC horientzat propio egindako WindowsXP bat izango dutela sistema eragile gisa, baita neurria egindako Pentium prozesadorea ere. Informatikaren munduko konpainiarik handienak elkartu dira ordenagailu berri hau sortzeko, eta jada ari dira beharko duen softwarea eta hardwarea garatzen. Compaq, Acer eta Microsoft bezalako enpresak daude horren guztiaren atzean. Azken hori da proiektuaren bultzatzaile nagusietarikoa, eta horri buruzko informazioa eskaintzen duen web orri bat ere badu (<http://www.microsoft.com/windowsxp/tabletpc/>).





## Benetan eramangarria den ordenagailua

Ordenagailu eramangarriak asko aurreratu du teknologikoki: pisuz gero eta arinagoa da, pantailaren kalitate ona eta prestazioak bikainak. Baina ez da lantresna egokia autobusaren zain zaudenean zutik erabiltzeko adibidez. Horregatik da beharrezkoa benetan eramangarria izango den tresna baten garapena. Hori da garatzaileek helburu bezala dutena: eramangarritasuna.

*“TabletPCa gaur egungo eramangarrien pisuaren erdia duen liburuxka baten tamainako ordenagailua da”*

TabletPCa gaur egungo eramangarrien pisuaren erdia duen liburuxka baten tamainako ordenagailua da. WindowsXPren bertsio propioa izatean Windows-ek onartzen dituen aplikazio guztiak erabili ahal izango dira, eramangarri bat bezain erabilgarria bihurtuz ordenagailua.

Interfazea ez da gauza berria: arkatz optikoa erabiliko du interfaze bezala,

## PCak ezpainak irakurtzen ikasiko du

Hamar urte barru, ordenagailu arruntek erabiltzaileen aginduak jasoko dituzte honen ezpainak irakurritik. Hori da behintzat, Intel egiten ari den ikerketatik ondoriozta daitekeena. Etxe horretan egiten ari diren ikerketak helburu garbia du: hamar urteko epean PCek pertsonak duten ikus-teko ahalmen bera izatea. Hortik ondorioztatzen dute ordenagailuak ezpainak irakurri ahal izango dituela. Intel-eko ikerketa- eta garapen-zentroko zientzialarien helburua ordenagailua bere ikus eremuarekin erlazionatzeko eta hori ulertzeko gai izatea da.

## iMac berria, orain ere berritzaile

Apple-ek iMac-a berrituko duela eta horrek izango duen itxuraren inguruan zurrumurrutz josita egon da Internet azken hilabeteotan. Horietako askok izango duen itxuraren irudiak ere aurreratu



tzen zituzten, baina azkenean, zurrumurrue-tako ideiarik onenak ere gainditu ditu Apple-ek.

Itxura aldetik zoragarria da behintzat iMac berri hau. Eta teknikoki, badirudi polita bezain egokia dela. TFT pantaila izateaz gain, modeloaren arabera, CD grabagailua edo DVD grabagailua ere baditu. Prozesadorea 800 Mhz-eko G4a da eta konexio-atarako guztiz hornitua dator, USB, FireWire, Ethernet, modem eta behar diren ataka guztiekin. Prezioa? 1.600 eta 2.200 \_ bitartean.

baita ahotsaren bidezko ezagutza ere. Arkatz optikoaren erabilera azken hamar urteotan ezagutzen den teknologia da, eta, beraz, ez hain arrotza erabiltzaileentzat. Kasu honetan gainera, berrikuntza bat gehitu diote: “utzi tinta tinta bezala”. Hori da behintzat bereaiek erabili nahi duten esaldia. Hau da, makinak ez dezala erabiltzaileak idatzitakoa testu bihurtu, idatzi duen bezala utzi baizik. Horrela, behar ditugun oharrrak era ulergarriagoan hartu ahal izango omen ditugu.

Dena den, badirudi hardware aldetik hainbat aukera izango direla: esaterako, Acer etxea garatzen ari den TabletPCetako bat ordenagailu eramangarriaren eta TabletPCaren arteko nahasketa omen da jendea ohitzen joan dadin. Tresnak ordenagailu eramangarria omen dirudi kanpotik, baina pantaila horizontalki nahi bezala bira daiteke. Horrela, ordenagailua ixtean pantaila goraka baldin badago, TabletPC gisa erabili daiteke. □